

/ Nabarmentzekoak

- > 120 amarrareku erregularizatu dira Kirol Portuan kontratazioen lehen hilabeteen (2. or.)
- > 169.870 turista 2025ean, eta 9.265.000 euroko eragin ekonomiko zenbatetsia (2. or.)
- > Maider Aresti, Naroa Azpitarte, Juan Prado, Juan Vilallonga, June Larrañaga eta Telmo Fisher, 2025eko Getxoko kirolari onenak (5. or.)



* Inauteriak, Romon eta Andra Marin (3. or.)

Antzerkia. Ostirala, hilak 20, 20:00etan, Muxikebarrin, "No me toques el cuento", Olivia Lararekin. 12 euro.

Dantza. Igandea, hilak 22, 18:00etan, Muxikebarrin, "¿Dónde está Alicia?" Marea Danzarekin. 6 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

A-
GENDA

“Portu–Hiri Jasangarria Getxo/Bilbo: Ikuspegi Integratua 2030+” proiekturako Master Plana egiteko laguntza teknikoa lizitatu du Bilboko Portuak

Bilboko Portuko Agintaritzak lizitatu du *Portu–Hiri Jasangarria Getxo/Bilbo: Ikuspegi Integratua 2030+* proiektuaren Master Plana egiteko laguntza teknikoa. Ekimen estratagiko horrek Getxoko kirol-portua, Arriluze ingurua eta gurutzantzien terminala hartzen ditu, Getxoko udal-eremuaren barruan.

Ivan Jiménez Bilboko Portuko Agintaritzako presidentea eta Amaia Aguirre Getxoko alkatea azpimarratu dute bi erakundeek elkarrekin egin nahi dutela aurrera portuaren eta hiriaren artean ahalik eta integrazioz onena lortzea ahalbidetuko duen proiektu baten definizioan, ikuspegi komun, koordinatu eta epe luzearako batetik.

Master Plana egitea Bilboko metropoli-estrategiaren barruan sartzen da, eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin, Europako Itun Berdearekin eta Garapen Jasangarrirako 2030eko Euskal Estrategiarekin bat dator.

Estrategikoa, orientagarria eta jasangarritasuna integratzen oinarritua

Master Plana dokumentu estratagikoa, orientagarria eta ez arautzailea da, epe labur eta ertainerako ikuspegia du, eta hainbat garapen-egoera aztertuko ditu, eta etorkizuneko jarraibideak eta jardura-irizpideak zehaztuko ditu, berez hirigintza-tresna bat izan gabe eta eskubide juridiko zuzenak sortu gabe. “Helburua Getxoko gune emblematikoa bat eraldatzea eta biziberritzea da”, adierazi du presidentea, “itsasoarekin duen harremana sendotuz eta hiri-, gizarte- eta ekonomia-balioa emanez, jasangarritasuna hiru dimentsiotan ulertuz: ingurumena, ekonomia eta gizarte. Planak neutraltasun energetikorantz aurrera



HIRU FASE

Master Plana egiteko epea hamaika hilabeteen zehar garatuko da, laguntza teknikoa esleitzen denetik kontaktzen hasita, 2027ko erdialderako amaitzea aurreikusten dela, eta hiru fase argi bereizitan antolatuko dela:

- 1) **Hasierako proposamena edo zirriborro teknikoa**, esparruaren azterketan, diagnostikoan eta helburu eta alternatiba estratagikoen definizioan oinarritua.
- 2) **Informazioa emateko eta entzuteko prozesu parte-hartzailea**, inplikaturako eragileen (erakundeak, gizarte zibila, kirol-klubak, etab.) ezagutza, interesak eta ikuspegiak kontrastatzeko eta bilatzeko mekanismo egituratu gisa sortua.
- 3) **Master Planaren azken idazketa; hala badagokio**, jasotako ekarpenen sintesi arrazoitua eta behin betiko proposamena sartuko dituen, eta Bilboko Portuko Agintaritzak baliozkotuko duena.

egitea bilatuko du, portu-zerbitzuen funtzionaltasunari, mugikortasunari, berrikuntzari eta eraldaketa digitalari uko egin gabe, portu-sistemaren erreferente eta portu-hiri integrazioaren nazioarteko adibide bihurtzeko helburuarekin”.

Amaia Aguirre alkatea azpimarratu du lizitazio hau “beste urrats bat da plan baten barruan, aukera handia ematen baitu aurrera egiten jarraitzeko portu bizi, ireki eta hirian erabat integratu baterantz, getxotarrarentzat pentsatua. Jarduera nautikoa eta kirol-jarduera herritarren gozamenarekin, jardura ekonomikoarekin eta potentzial turistikoarekin konbinatuko dituen portuaren aldeko apustua egiten dugu, betiere ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuna irizpideak kontuan hartuta. Getxok ilusioz beteriko etapa bat irekitzen du orain: portu irekiagoa, jasangarriagoa eta hiriko bizitzan hobeto txertatua, getxotar guztientzat harro egoteko modukoa”.

Info: <https://labur.eus/0944s11x>

Getxo delitu kopuru txikiena duen Bizkaiko udalerrri handietako bat da



Amaia Aguirre alkatea, Bingen Zupiria Segurtasun sailburua eta Keltse Eiguren Segurtasun zinegotzia, polizia arduradunekin batera, aste honetan bildu dira udaletxean, udalerriko segurtasunarekin lotutako gaiak aztertzeko. Euskal Poliziaren (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) datuen arabera, 2025ean, 3.590 delitu erregistratu ziren Getxon, aurreko urtean baino %4,60 gutxiago. Delitu presentzialak 2.524 izan ziren (-%6,12). Ziberdelituek ere %0,21 egin zuten behera. Datu horiek ikusita, Aguirrek eta Zupiriak honako hau nabarmendu zuten: “Getxo kriminalitate- eta delitu-tasa txikiena duen Bizkaiko udalerrri handietako bat da. Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzeta eta lan koordinatua funtsezko faktorea da gure udalerraren eta Getxoko kaleetan bizi, lan egin eta paseatzen duten pertsonen segurtasunerako”.

Info: <https://labur.eus/5n4c7czc>



OTSAILAK 12 OSTEGUNA

Zinemabari. 19:00etan, Muxikebarrin, Laura Carreiraren "On falling" (AJB). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

OTSAILAK 13 OSTIRALA

Eskola inauteriak. 10:30ean desfileen irteerak. **Algorta-Romo** Sarrikobasoko biribilgunetik. **Romo-Areeta** Romo ikastetxetik.

Kontularien Kluba. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea.

Negufest. 21:00etan, Muxikebarrin, Standstill (rock). 25 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Irati Gorostidiren "Aro berria". Nagusientzat. 3,50 euro.

OTSAILAK 14 LARUNBATA

Ipar Martxa. 10:00etan irteera Algortako batzokitik, Getxon ibiltzeko. Beharrezkoa da parte-hartzea baieztatzea (hilaren 10a baino lehen) nw.itxartu@gmail.com helbidean. Antolatzailea: Itxartu.

Inauteriak. Romo eta Andra Mari. Ikusi 3garren orrialdea.

Dantza plaza. 19:30ean, Santa Eugenia plazan, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Neguko bidaia. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Ai ene, maitasuna!", Olatz Saitua (sopranoa) eta Itxaso Sainz de la Maza (pianista). 5 euro.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Mejor no decirlo", Imanol Arias eta María Barrancorekin. Sarrerak agortuta.

OTSAILAK 15 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Paddington: aventura en la selva". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Patrick: heroi txikiak, balentria handiak". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Kimu" (euskaraz), Marie de Jongh konpainiarekin. 10 euro.

Antzerkia. Emakumeak ezzenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ganas de todo", Totum Teatrotarekin. Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin).

OTSAILAK 16 ASTELEHENA

Haur ikuskizuna. Pailazoa. 12:00etan, Muxikebarrin, "Solo", Roi Borrallasekin. 10 euro.

Mahai-ingurua. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Por qué es importante participar en los cribados de Osakidetza". Hizlariak: Isabel Portillo (Mediku Epidemiologikoa. Osakidetza ko baheketen koordinatzailea), Joana Lz. de Gereño (Getxoko Minbiziaren Elkarte), Purificación Mz. el Prado (Basurtuko Ospitaleko Onkologia Ataleko Burua) eta Yolanda Gz. Rábago (EHUko soziologia irakaslea. Komunikazioan Aditua). Antolatzailea: Gizatiar.

OTSAILAK 17 ASTEARTEA

Haur ikuskizuna. Antzerkia. 12:00etan, Muxikebarrin, "Zomorroak", Spasmo Teatrotarekin. 10 euro.

OTSAILAK 18 ASTEAZKENA

Hitzaldia. 18:30 h, Urgul Zentroan, "Inteligencia artificial" (gaztelera). Hizlaria: Luis Eguidazu (prozesuak optimizatzeko aholkularia). Antolatzailea: Agora-EurGetxo. www.eurgetxo.wordpress.com

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Un fin doméstico y privado" liburuaran aurkezpena, Iñigo Larroque egilearen eskutik.

OTSAILAK 19 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kutxa txiki magikoak", Bego Alabazanekin. 3-6 urte. Doan. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitz

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Pilar Quintanaren "La perra" liburuaran buruz.

Zinemabari. 19:00etan, Muxikebarrin, Constance Tsangen "Blue Sun Palace" (AJB). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

OTSAILAK 20 OSTIRALA

Inauteriak. Algorta. Info: <https://labur.eus/oeufopud>

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Jainko bakarra", Martzel do Nascimento Goiriaren margoak.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "No me toques el cuento", Olivia Lararekin. 12 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Albert Serraren "Tardes de soledad". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

OTSAILAK 21 LARUNBATA

Inauteriak. Algorta eta Areeta. Info: <https://labur.eus/h0l3sj51>

Neguko bidaia. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Azken Dantza hau", Mario Clavell & lagunak. 5 euro.

OTSAILAK 22 IGANDEA

Inauteriak. Algorta. Info: <https://labur.eus/oeufopud>

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Sari nagusia ziztu bizian". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Dantza. 18:00etan, Muxikebarrin, "¿Dónde está Alicia?", Marea Danzarekin. 6 urtetik aurrera. 8 euro.

120 amarraleku erregularizatu dira Kirol Portuan kontratazioen lehen hilabetean

Kirol-portuko amarratzaileek otsailaren 28ra arteko epea dute kontratua formalizatzeko. Urte honen hasieratik, amarralekuen 120 kontratu eta lokalen 9 kontratu formalizatu dira, orain arte zeuden 450 ontzi eta 16 lokaletatik.

Amaia Aguirre alkate eta Kirol Portuko Administrazio Kontseiluko presidentek adierazi duenez, prozesuak aktibo jarraitzen du egoera guztiak pixkanaka erregularizatzeko eta kudeaketa-eredu ordenatuagoa, gardenagoa eta bidezkoagoa bermatzeko. "Prozesu hau funtsezkoa da konfiantza berreskuratzeko eta

hobeto kudeatutako portu bate-rantz aurrera egiteko, irisgarriagoa eta jasangarritasunaren eta zerbitzu publikoaren balioekin lerrokatuagoa. Amarratzaile guztiak animatu nahi ditugu formalizazioa ezarritako epearen barruan egitera".

2026. eta 2027. urteetarako onartutako prezioen berrikuspenak 2025. urtearekin alderatuz murrizketak dakartza, tarifen sinplifikazioa eta irizpide bidezkoagoak eta gardenagoak jasotzen ditu, bai amarralekuen kasuetarako, bai lokalen kasuetarako.

Interesa dutenek Kapitaintzaren bulegoetara jo dezakete (09:00-17:00), edo dokumentazioa info@pdgetxo.eus helbidera bidali. Informazio gehiago: 94 491 23 67.



169.870 turista 2025ean, eta 9.265.000 euroko eragin ekonomiko zenbatetsia

2025a urte turistiko ona izan zen Getxorentzat, Udaleko Turismo Unitateak egindako balantzetik ondorioztatzen denez. 169.870 turista eta bisitari (+%0,15) iritsi ziren Getxora eta gozatzeko prestatutako instalazioetara joan ziren: Bizkaia Zubiko oinezkoen pasabidea, turismo bulegoak, kirol portua, hotel-establezimenduak eta Turismo Bulegoko erreserba zerbitzua. 17 autonomia erkidegotatik eta bi hiri au-

tonomotatik etorri ziren, eta bost kontinenteetako 50 herrialdeetatik baino gehiagotatik.

Bisitatu gintuztenek egindako gastua aztertu ondoren (ostatua, garraioa, jarduerak, mantenua eta erosketak), esan daiteke turismoaren sektoreak 9.265.3356 euroko eragin ekonomiko zuzena izan zuela Getxon (+%15,63). Horri 10,27 milioi euro gehitu behar zaiz-

kio, Euskal Kostaldeko helmugetan (Ibiltour Ocio 2023) pertsona bakoitzeko eta Euskadiko egonaldi eguneko batez besteko gastu turistikoagatik zenbatesaten direnak. Nazioarteko turismoak laguntzen du turistak egonaldian egiten duen gastu-maila handitzen, baita desestazionalizazioan ere.

Datu horiek berresten dute Getxok eredu jasangarri eta bikaintasun eredu baten alde egindako apustua fruituak ematen ari dela, udal agintarien arabera, bisiten urtarokotasun eza nabarmenduz, eta horrek erakusten du Getxoren kultura eta ondare erakargarritasuna sendotzea lortzen ari dela, uda sasoiak harago.

Info: <https://labur.eus/vk8csugl>

"Oporrak Bakean"

Otsailaren 25ean amaituko da Oporrak Bakean udan 11 urteko haur sahararrak hartzeko ekimenerako izenematea. Hori ATFAL elkarteak antolatzen du, Udalaren laguntzarekin. Informazioa: 658751359 / atfalgetxo@gmail.com / 944660017 / lankidetza@getxo.eus



Gerra zibilaren, aurreko gatazka zibilen eta frankismoaren biktimei egindako omenaldia

2009ko ekainean aho batez hartutako erabakia betez, Udalak omenaldia egin zien gerra zibilaren, aurreko gatazka zibilen eta frankismoaren biktimei Galeako pasealekuan dagoen **Oroimena-ren liburua** eskulturaren ondoan, aurreko larunbatean, otsailak 7. Omenaldian Amaia Aguirre alkatea eta Udalean ordezkartza duten alderdi politikoetako kideak izan ziren, Elkarrekin Podemos izan ezik, besteak beste. Txistulariek **Agur Jaunak** interpretatu ondoren, minutu bateko isilunea eta lore-eskaintza egin zuten bertaratutakoek eskulturaren aurrean, biktimei errespetua, oroitzapena eta benetako gorazarrea publikoki aitortuz, adiskidetzeari eta elkartasunari begira.

Tratu txarren biktimeak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



“Ganas de todo”, komedia bitalista

Agortu egin dira Totum Teatro taldeak *Emakumeak Eszenan* zirkuituaren barruan igandean, hilak 15, 19:00etan Romo Kultur Etxean taularatuko duen *Ganas de todo* antzezlanerako sarrerak. Komedia bitalista bat da, gure egunerokotasuna mugitzen duten kontraesan txikiak eta desio handiak umorez eta hurbiltasunez aztertzen dituen. Taldeak proposamen dinamikoa eta zuzena eraikitzen du, non erritmoak eta konplizitateak bizitzeko, aldatzeko... gogoia eta norbere buruaz barre egiteko gogoia bultzatzen duten.

Bapiruke koloniak

Ostiralean, otsailaren 13an, bukatuko da Bizarra Lepoan elkarrekin antolatzen duen Bapiruke euskarazko kolonietarako izena emateko epea. 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, martxoaren 31tik apirilaren 10era izango dira, Zabalako eskolan. Orduetara 9:00etatik 13:30era izango da eta txango egunetan (martxoak 31 eta apirilak 9) 17:00etara arte. Informazioa eta izenematea: www.bizarralepoan.eus, info@bizarralepoan.eus edo 94 491 03 87 zenbakian.

Binbili Bonbolo saio gehiago

Familiatan euskararen erabilera sustatzeko Udalak eta Egizu elkarteak sustatutako Sendi ekimenak 0 eta 2 urte arteko haurrekin euskaraz jolasteko eta kantatzeko saio gehiago antolatu ditu, Azbarri Kultur Elkartearen egoitzan. Baliabideak konpartitzeko, sareak sortzeko eta euskara ikastera animatzeko, bi doako saio izango dira Amaia Egidazu hezitzailearekin, martxoaren 3an eta 17an, 16:00etatik 16:40era euskaraz berba egiten duten gurasoentzat, eta 16:45etik 17:25era oraindik ez dakitenentzat. Inskripzioa: sendigetxo@gmail.com / 622 433 085.

Gurot lehiaketarako izenematea

Martxoaren 8ra arte zabalik egongo da Gurot euskal galderei buruzko lehiaketan, martxoaren 9tik apirilaren 13ra, taldeka parte hartzeko izen-ematea. Bizkaiko bi mankomunitatek eta hiru udalerrik sustatzen dute lehiaketa, horien artean Getxok. Udalerriak irabazten duten lehenengo bi hiru-koteek sari teknologikoak eskuratu dituzte, Bizkaiko final handirako pasarekin batera, apirilaren 24an, San Mamesen. Informazioa: <http://labur.eus/mp0hkmnn>

“Urdinez blai”, Romon, eta “Galtzagorriak”, Andra Marin, Inauterietako mozorroetarako gaiak

Ostiral honetako goizean, hilak 13, izango diren eskolako inauterien desfileen ondoren, Romo eta Andra Mariko kaleak musikaz eta mozorroz beteko dira larunbatean, hilak 14.

Romoko ekitaldiak Santa Eugenia plazan izango dira. Aurten mozorroetarako aukeratutako gaia *Urdinez blai* da.

Egitaraua goizeko 11:30ean hasiko da, haurrentzako tailerrekin. Ondoren mozorro erakustaldia eta herriko bazkaria izango dira. Arratsaldean, 17:30ean ekingo zaie

berrirori ekitaldiei, kalejira batekin, eta ordubete geroago txokolatada izango da. 19:30ean, herriko dantza taldeek Dantza Plazako erromeria berri batean parte hartuko dute. Errrome Punk taldearen beste erromeria batekin amaituko da egitaraua, 22:30ean hasita. Programazioa hemen kontsulta daiteke: <https://labur.eus/wvu1dvi0>

Eta aurten ere, Itxas Argiak **Andra Marin** antolatu ditu ospakizunak. Aurtengo gaia *Galtzagorriak* da. 11:00etan hasiko da kalejira, Bentatik abiatuko da, eta Aingeruaren etorbidean eta Bi-

dezabalen barrena jarraituko du, Malakaten amaitzeko. Bertan, 13:00etatik aurrera, zurezko tresna tradizionalekin jolasak egingo dira Zureskuren eskutik (jaurtiketa, punteria, logika, lankidetzeta...). Arratsaldean, 17:30etik aurrera, txokolatada bat programatu da Bentan. Egitaraua: <https://labur.eus/0b2kzyap>

Datorren astean ospakizunak **Al-gortan** izango dira, hilaren 20, 21 eta 22an, eta **Areetan**, hilaren 21ean, larunbatean. Programa osoak udalaren webgunean: <https://labur.eus/h4cyv9lo>

“Mejor no decirlo” komediarako sarrerak agortuta, María Barranco eta Imanol Ariasekin

María Barranco eta Imanol Arias asteburu honetan iritsiko dira Getxora, Muxikebarrin Claudio Tolcachirrek zuzendutako *Mejor no decirlo* komedia antzezteko. Sarrerak agortuta daude.

Larunbatean, hilak 14, 20:00etatik aurrera, eszenatokira igoko dira, arau hutsezin bati esker bizirik iraun duten senar-emazteei bizia emateko: noiz hitz egin eta, batez ere, noiz isildu jakitea. Jendeak zintotasunez, ironiaz eta etxeko hondamendi txikiz beteriko jolas bat ikusi ahal izango du, non edonork bere burua ezagutu dezakeen.



Inauteri egunetarako haur programazioa, Muxikebarrin

Herriko txikienek haurrentzako hiru ikuskizun izango dituzte egunotan Muxikebarrin, Inauterietako jaiekin batera. Emanaldi bakoitzetarako sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Igandean, hilak 15, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Marie de Jongh euskal konpainiak *Kimu* antzerki fisikoko elementuak, maskarak eta testua uztartzen dituen muntaia antzeztuko du euskaraz, irudimenaren eta naturaren arteko harreman aztertzen duen istorio poetiko eta fantastiko bat kontatuz.



Astlehenean, hilak 16, 12:00etan, Roi Borrallas eszenatokira igoko da *Solo* antzezteko, pailazo baten atzealdea zein den, bere ideiak eta erokeriak kontatuz.



Asteardean, hilak 17, 12:00etan, Spasmo Teatrok *Zorroak* ikuskizuna taularatuko du euskaraz, in-tsektuen mundua aurkezten duen keinu umorezko ikuskizuna.

Muxikebarri eta San Nikolas plazan sei ikuskizun izango dira “Danza a Escena” zirkuituaren barruan

Getxok, bigarren urtez jarraian, *Danza a Escena* zirkuituan parte hartzen du, Espainiako Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdi Publikoen Sareak garatua, modalitate eszeniko hori sustatzeko. Horretarako, otsailetik urrira Muxikebarrin eta Algortako San Nikolas plazan ikusi ahal izango diren sei ikuskizun programatuko ditu.

Getxo Kulturak sei dantza-lanen kontratazioa kofinantzatuko du eta horretarako 10.000 euroko laguntza jasoko du. Otsailaren 22an irekiko du proposamena Muxikebarrin, *¿Dónde estás, Alicia?*, Valentziako Marea Danza konpainiak Lewis Carrolen *Alicia en el País de las Maravillas* klasikoa berrinterpretatuko duen lana, adin guztietako publikoarengana hurbiltzeko.

Ekainaren 26 eta 27an, San Nikolas plazan hiru pieza labur ikusi ahal izango dira. Ostira-lean, hilak 26, *Burnt*, LaSala gipuzkoar formazioaren azken lana, mezu antikonsumista bati helduko dio; ondoren, *La nueva bestia*, Laura Morales artista andaluziarraren sorkuntza bat, besteak beste, landa eremua uzteari buruz hausnartzen duena. Hurrengo egunean, larunbata 27, *Baunsbak* aurkeztuko da, Elvi



Balboa galiziar koreografoaren lana, dantza, soinu-instalazioa eta teknologia uztartzen dituen.

Uda ostean, urriaren 11n itzuliko da zirkuitua, Muxikebarrin programatuko diren bi lanekin. Brodas Bros nazioarteko konpainiak *Mini-Break* ikuskizun familiarra eskainiko du,



hip-hoparen kultura eta erritmo urbanoak omentzeko. Azkenik, aurtengo proposamena itxiko du, *Ez, Madrilgo La Venidera* konpainiak egindako lana, ezeztapena sorkuntza-iturri gisa balioesten duena.

Informazio gehiago:

<https://labur.eus/lkcw2wdh>

“Oniro” antzerki bisualaren proiektua Juana Bizkarra arte eszenikoen egoitzan hautatu dute

Oniro proiektua, RubiK al Kuadrado euskal konpainiarena, Juana Bizkarra Egoitza Artistikoaren seigarren edizioko epaimahaiak aukeratutako proiektua da. Estitxu Zaldua eta Juanjo Herrero dira antzezlan honen sortzaileak, eta antzezpena txotxongilo eta objektuen erabilerarekin tartekatzen dute. Familia publikoari zuzenduta, haurtzaroak nerabezaroari lekua uzten dion heinean sortzen hasten diren beldurrak jorratzen ditu, eta, bere historiaren bidez, pertsona ororen hazkunde pertsonalaren parte diren beldur horiek ezagutzea eta onartzea bilatzen du.

Proiektu hau martxan jartzeko egoitza Muxikebarrin izango da (abuztua-iraila) eta aurrestrenaldia irailaren 17an eta 18an izango da. Egun bat lehenago, irailaren 16an, jendaurreko saio bat egingo da.



“Ai ene, maitasuna!”, maitasunari eskainitako errezitaldia Neguko Bidaia zikloan

Olatz Saitua sopranoak eta Itxaso Sainz de la Maza pianistak emanaldia eskainiko dute larunbatean, otsailak 14, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Neguko Bidaia zikloaren barruan. *Ai ene, maitasuna!* leloarekin, eta San Valentinen ospakizunarekin batera, estilo eta konpositore askotako abestiekin osatutako errepertorioa interpretatuko dute, maitasuna gai nagusi dutela. “*Musikaren historian zehar, maitasuna izan da agian gehien erabili den gaia. Trobadoreen kantuetatik pop kantua garaikideetaraino inspirazio iturri agortezina izan da*”, diote. Sarrera: 5 euro.



Standstill taldeak ikuspegi berria emango dio “Vivalaguerra” diskoari Negufest jaialdiaren barruan

Standstill rock taldea asteburu honetan iritsiko da Getxora, *Vivalaguerra* disko txalotua argitaratu zutenetik 20 urte bete direla ospatzeko biraren barruan. Ostiral honetan, hilak 13, 21:00etatik aurrera joko dute, Negufest neguko jaialdiaren barruan, eta sarrerak 25 euro balio du. Zortzi urtez geldirik egon ondoren, iaz agertokietara itzuli zen taldea. Lehenengo harrিতuta eta gero izugarri hunkituta, Enric Montefusco, Ricky Falkner, Piti Elvira eta Ricky Lavado konturatu ziren beren aztarna inoiz imajinatu baino askoz sakonagoa dela.



Maidar Aresti, Naroa Azpitarte, Juan Prado, Juan Vilallonga, June Larrañaga eta Telmo Fisher, 2025eko Getxoko kirolari onenak

Maidar Aresti, Naroa Azpitarte eta June Larrañaga errugbi jokalariek, Telmo Fisher errugbi jokalaria eta Juan Prado eta Juan Vilallonga belar hockeyko jokalariek jaso dute 2025eko Getxoko kirolari onenen aitortza. XIX. Getxo Sasoi Sasoiaren Sariaren galan jaso zuten saria, pasa den asteartean, hilaren 10ean, kirol- eta gizarte-gunea den Fadurako Tiki Toki Zentroan.

Getxo Kirolak-eko teknikariek, kazetariek eta kirol arloko aditu getxotarrek osatutako epaimahaiak eman zuten jakitera sariaren zerrenda. Banakako sari gorenetan, Getxo Rugby Taldeko Maidar Arestik eta Naroa Azpitartek **Kirolari onenaren** saria jaso dute, emakumezkoen senior mailan, Espainiako selekzioarekin lortu zuten Europako Txapelketari esker. Gainera, aurreko Munduko Kopa jokatu zuten, Ingalaterran. Gizonezkoen senior mailan, beste sari bikoitz bat: Juan Pardo eta Juan Vilallonga Real Club Jolasetako jokalariei eman zaiena, Indian belar-hockeyko 21 urtez azpiko munduko txapeldu-norde izan ondoren.

Promesa kategoriako sarietan, emakumezkoen saria June Larrañaga Getxo Rugby Taldeko kidearentzat izan da, 18 urtez azpiko Europako Txapelketa Frantziara irabazi ondoren. Era berean, Telmo Fisher Aviron Bayonnaiseko errugbi jokalaria 2024an gizonezkoen promesen kategorian eskuratu zuen sari bera jaso du berriro, estatuko errugbiaren historian lehen aldiz 18 urtez azpiko Europako Txapelketa lortzeagatik, finalean sei titulu kontinental jarraian lortu zituen Georgiari gailendu eta gero.

Sari kolektiboetan, senior kategorian, aurtan Getxo Bolei Kirol Taldeko emakumezkoen taldea aintzatetsi dute, historian lehen aldiz Espainiako 1. mailara igotzeagatik, eta Arenas Club RFEFeko 1. mailara igotzeagatik. **Promesa taldeentzako** sari kolektiboetara dagokienez, emakumezkoetan, saria Espainiako Txapelketa irabazi zuen kadete mailako Jolasetarentzat izan da eta, gizonezkoetan, Getxoko haur mailako Igeriketa Waterpolo Bolue Elkartearentzat, Espainiako Txa-

pelketan lortutako urrezko eta zilarrezko dominengatik.

Edizio honetako palmaresa osatzeko, **sari bereziak**: Marka Hautsiz saria Haszten-Arenas futbol taldeari eman zaio areto futbol inklusiboaren inguruan egindako lanagatik; Kiroltasuna saria Jesús Muro Raspas del Embarcadero Arraun Elkarteko kidearentzat, arraunean eta bere klubean egindako dedikazio luzeagatik; Steelphalt enpresak Getxo Zabala saria jaso du Ge-

txoko hainbat kirol klubi babesle moduan emandako laguntzagatik; Berdintasuna Indartuz saria Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Clubarentzat eta bere emakumezkoen taldearentzat izan da, International Women's Sailing Cup bela txapelketa antolatzeagatik; eta aurtan berrikuntza bat izan da, Kirola eta Euskara sariarena, kirol jardunean euskararen erabilera nabarmendutuen duena. Igeriketako Swim Camp Getxo klubak jaso du.



Getxo Saskibaloit Taldeak bere babesle nagusia omendu du

Getxo Saskibaloit Taldeak Punta Begoñako Galerien agertoki ikonikoa aukeratu zuen bere babesle nagusiari, Vascons enpresari, omenaldia egiteko eta eskerrak emateko, joan den ostegunean, hilak 5, egin zen ekitaldi instituzional batean. Ekitaldi horretan Klubeko batzorde kudeatzaileko kideak, senior taldeetako jokalaria eta entrenatzaileak eta enpresa babeslearen gerentzia izan ziren; horri,

kamiseta ofizial markoztatu bat eman zioten opari.

Bi erakundeen arteko aliantza "ez da soilik merkataritza akordio bat, baizik eta ahaleginaren, talde lanaren, iraunkortasunaren eta tokiko sustraitzearen balioekiko konpromiso partekatua bat", Getxo Saskibaloit Taldeko arduradunek hunkigarria izan zen ekitaldian nabarmendu zuten.

Hegaztien behaketa Balanarren

Balanar (La Bola) hondartza ondoko moilako pasealekua izango da berriro Abrara babesteko, elikatze-ko eta atseden hartze-ko hurbiltzen diren hegazti migratzaileak behatzeko lekua. Hegaztiak begiratzeko jardura larunbat honetan egingo da, hilaren 14an, udaleko Ingurumen Unitateak antolatuta, 09:30etik 13:30era, eta doakoa eta herritar guztientzako izango da.

Helburua da barrualdeko Abrari buruzko beste ikuspegi bat eta hango hegaztien aberastasuna erakustea; halaber, hegaztien balioak eta natura-inguruneari egiten dioten ekarpena transmititzeko saiakera egingo da, haien behatze, identifikatze eta gozatzeko. Besteak beste, karioak, lertxunak, limikolak, ubarroiak, murgilak eta txilinportak ikusi ahal izango dira.

Jardura honetan parte hartze-ko ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea; nahikoa da larunbatean Balanar hondartza ingurura hurbiltzea aipatutako ordutegian.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, KIROLAREN HIRIA

Getxon, kirolaren alorrean ere lantzen ari denarekin egin daitekeen konparaziorik onena izan da Arenas Cluben futbol-taldearen garaipena. Arenas Clubek lehenengo partida irabazi du, Getxoko belar naturaleko Fadura futbol-zelai berriaren jokaturako estreinaldi-partida, alegia. Inbertsioa milioika eurokoa izan da, eta zelaia Arenas Club Lehen Federazioan lehiatzeko oholtza da dagoeneko. Lanak egin dira Getxoko zelaiko hesia konpontzeko, aldagelak egokitzeko, harmailak garbitu eta konpontzeko, eta sarbideak berritzeko. Horrez gain, zelaiaren atzean ibai-pasealeku berria ireki da, baita Las Uves plazatik sarbide-ate bat ere.

EAJ-PNV alderdiko kideok argi daukagu gure herriko biztanleekin hartzen ditugun konpromisoak bete behar ditugula. Era berean, argi daukagu zarata artean «galtzen» direla egunero Udalak bideratzen dituen ekintza eta proiektu ugari.

Horren adibide argia kirolaren esparruan daukagu. Biztanleekin daukagun konpromisoa gure hauteskunde-programak jasotzen du, eta 4. puntuari argi bat nabarmentzen da: Getxo, kirolaren hiria. Eta, bada, egunero pixka bat gehiago.

Thinking Fadura parte-hartze izaerako prozesuaren bidez ekipoak berritzeko proiektua, Fadura Kirol Parke Berria, aurrera doa. TikiToki adibide bikaina da, baina baita frontoietan eta parkeetan egindako lanak ere, bertan ondo pasatzen baitugu. Halaber, laster ikusiko dugu proiektu hau abiaraziko dela: atletismo eta errugbirako tribuna berria, Getxon merezi dugun mailako ekipo eta zerbitzuekin. Benetan miragarria izango da, TikiToki espazioa bezalaxe.

Horrez gain, jada abian dagoen Kirol Metodologi LAB proiektua ere aipatu beharra dago. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean bideratutako laborategiak kirol-metodolo-

giak lantzen ditu eta kirolaren abangoardian kokatzen gaitu. Erakunde publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatutako ekimenak Getxoko klubak sendotuko ditu eta kirol-errendimendua hobetzeko maila goreneko zerbitzuak garatuko ditu.

Getxo udalerrria kirolaren hiria izaten jarraitzeko funtsezko ardatza da kirol-eskaintza etengabe berritzeko eta modernizatzeko konpromisoa. Getxoko klub, elkarte, entitate eta kirolariekin etengabe-lana egitea oinarritzeko apustua da.

Klubekin, entitateekin eta kirolekin lankidetzan aritzeaz eta kirol-eskaintza handia izateaz gain, Getxo Kirolak harpidedunei zenbait laguntza- eta informazio-zerbitzu eskaintzen dizkie: Getxoko kirolari eta jardueraren fisikoari buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko WhatsApp kanal berria; berriz ere aktibatutako osasun-zerbitzua, fisioterapia- eta errehabilitazio-saioekin; biztanle ororentzat doakoa den



kirol-orientazio zerbitzua; eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako kirol-orientazio zerbitzu oso garrantzitsua, pertsona orok kirola eta jardueraren fisikoa egin ahal izan dezaten, aniztasunarekin errespetutsuagoa eta inklusiboagoa den udalerrian.

Konpromiso horiek errealitatea dira Getxon, kirolaren hirian.



HAMALAU EGUN IGARO OSTEAN, JARDUNEKO ALKATEAK ORAINDIK EZ DU DIMISIOA AURKEZTU

Urtarrilaren 29ko Osoko Bilkurak gehiengo osoarekin onetsi zuen alkateak dimisioa aurkeztea, **getxoztarren konfiantza galdu** izanagatik eta **bere alderdiaren babes-gabezia** agerian geratu izanagatik. Politikoki ez da jasangarria berak udalburu gisa jarraitzea, ezta **hamalau egun igaro ostean** Osoko Bilkurak eskatutako erantzukizuna hartu ez izana ere. Gobernu-taldeak **irregulartasunak metatu** izanaren ondorioa da hori. Jauregitxoaren kasua behin betiko inflexio-puntua izan da. Izan ere, gardenki jorratu ordez, alkateak **arazoa ukatu zuen, horren larritasuna gutxietsi zuen eta az-**

tertzeko trabak jarri zituen, egitateen jakitun izan arren. Horri gehitu behar zaio **PSE-EE**, gobernuakide den alderdia, ere irregulartasun horien **jakitun** zela. Halaber, hori guztia nahikoa ez balitz, orain jarduneko alkatea denak **berriz ere ez du egia esan**: Agiriak egiaztatzen dute **Kirol Portuko hotelaren** altuera 26 metrokoa zela bazekiela eta horri abala eman ziola, nahiz eta publikoki ukatu eta proiektutik bere burua bereizten saiatu. Ezin da onartu **iruzurretik** abiatuta gobernatzea. Horrenbestez, **alkateak berehala dimisioa aurkezteko** eskatzen jarraituko dugu. #Andrade2027



ehbildu

IRURAK BAT: EZIN DA ILEGALITATE BATEN GAINEAN ERAIKI

Irurak Baten gertatutako guztiaren ondoren, Udalak aurrera jarraitu nahi du ezer gertatu ez balitz bezala, gertakarien larritasuna eta martxan dagoen ikerketa judiziala gorabehera. Eremu honetan lizentzia berriak emateak gertatutakoa nahita ez ikusiarena egitea dakar.

Jakin izan dugunez, Gobernu Batzordeak etxebizitzak eraikitzearen lizentzia berri bat ematea aurreikusten du ondare-balioa zuen eraikin bat suntsitu zen gune berean, eta EH Bildu Getxotik, pertsonatuta gauden prozedura guztietan jardungo dugu lizentzia hori gel-

diarazten saiatzeko.

Planteatzen dena oso larria da: balizko ilegalitateengatik ikertzen ari den jardueraren bat normalizatzen saiatzea, ondarea suntsitu ondoren enpresa batek etekin ekonomikoa lortzea ahalbidetzea eta interes pribatuak interes publikoaren gainetik jartzea.

Ikerketa judiziala zabalik dagoen bitartean, udal gobernuak badirudi kooperatibari eraikuntza-proiektuarekin jarraitzea erraztu nahi diola, gertatutako ezer zalantzan egongo ez balitz bezala.

Orain arte hasitako zehapena argi eta garbi ez da nahikoa eragindako kaltearekin eta indarrean dagoen legediak ahalbidetzen duenarekin alderatuta, eta herritarrei oso mezu kezagarria helarazten die: ondarea suntsitzea errentagarria izan daiteke.

Ezin da erraztasunik eman ondare historikoaz ari garenean. Sortzen ari dena aurrekari oso arriskutsua da: ondarea suntsitzen da zehapen ekonomiko minimoekin eta, gainera, proiektuarekin jarraitzea eta etekin ekonomikoak lortzea ahalbidetzen da normaltasun osoz.

EH Bildu Getxotik argi eta garbi diogu: udal gobernuak ondare publikoa defendatzeko jarduten ez badu, guk egingo dugu, eskura ditugun tresna legal eta politiko guztiak erabiliz.

Lizentzia hau geldiarazten saiatuko gara, ezin delako ikerketapean dagoen ilegalitate baten gainean eraiki, ezta inoiz gertatu behar ez ziren jarduerak normalizatu ere.

Ondarea guztiona da. Ez da negoziatzen, ez da isun sinbolikoekin ordezkatzen, eta ez da sustapen inmobiliarioak errazteko sakrifikatzen.



INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ARBUIOA ETA GAITZESPENA

Getxoko PSE-EEK **erabat arbuiazen eta gaitzesten du berriki Algortan jasotako eraso matxista**. Getxon zigorgabetasunak eta axolagabetasunak ez dute lekurik. Gizarteak irmoki erantzun behar die indarkeria-kasu guziei. **Berdintasun Zerbitzuak indarkeria matxistaren aurkako tokiko protokoloa aktibatuta du**. Tresna horrek bermatu egiten du **baliabideak koordinatzea eta lehe-**

nengo unetik babesa eta laguntza ematea. Horrez gain, erasoak jasan duen emakumeari eta bere ingurukoei elkartasun eta babes osoa helarazi nahi dizkiegu. **PSE-EE alderdiko kideok berretsi egiten dugu berdintasunarekin duen konpromisoa**. Ezinbestekoa da **prebenitzeko eta sentsibilizatzeko lanean jarraitzea**, eta biztanle guztiak bat egitea edozein indarkeria matxista mota

antzemateko, salatze eta gelditzeko. **Getxok hainbat zerbitzu ditu, hala nola gizarte-zerbitzuak, Berdintasun Zerbitzua eta GURARI Emakumeen Etxea**. Espazio horrek babesa, laguntza eta ahalbidetzea eskaintzen dizkie emakume guztiei, eragin politikorako eta topo egiteko erreferente feminista da eta aldaketa sozialean aurrerapausoak ematen laguntzen du.



LARRAÑAZUBI EZ ITXI

Larrañazubi HLHI ixtea ez da administrazio-erabakia soilik: eskola publikoaren, A ereduaren eta hezkuntza inklusiboaren aurkako kolpe bat da. Ikastetxe horretan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak daude, eta haien zaila izango da aukera egokia aurkitzea. Eusko Jaurlaritzak jarduteko modua arbuiazen dugu: ohararazpenik ez egitea, matrikulatzea zailtzea eta ikasleen interesei uko egitea. Larrañazubi ez itxi.